

## Errausketaren kontrako kanpaina hasi dute osasungintzako langileek

Errauskinek osasuna arriskuan jar dezakete langileen ustez

**H**iri hondakin solidoen tratamendurako Erandion (Bizkaia) eraiki nahi duten errauskailuaren kontrako kanpaina hasi dute osasungintzako langileek. Hauen iritziz, «errausketak, ingurugiro mailako arazoak eragiteaz gain, arriskuan jar dezake gizabanakoaren osasuna».

GORANE AGIRRE / BILBO

Osasungintzako langileen ustez «erabateko kontraesana izango litzateke osasungintzaren alde jardutea eta gero osasunarako kaltegarriak diren errauskailuez txintik ez esatea».

Osasun Publikoaren Defentsarako Elkarteak eta osasungintza publikoan diharduten CCOO, UGT, LAB, ESK, CNT, CGT, USO, SASC eta SAE sindikatuek berea egin duten kanpaina bi helburu nagusi ditu. Batetik, errauskailuen kontrako sinadurak biltzea eta bestetik, biztanlegoari jakinaraztea osasun sektorea errausketaren aurka dagoela.

Osasungintza sindikatuak ordezkariek atzo eskaini zuten prentsurrekoan aditzera eman zuten, errausketaren teknika «oso kezagarria» da biztanlegoaren osasunean duen eraginagatik. «Hondakinen errausketak», gehitu zuten, «dioxina eta furanoak ekoizten ditu, oso ku-



Errausketaren teknika oso kezagarria da langileen ustez.

tsakorrek diren osagaiak».

Errausketak sortzen dituen kutsagarri atmosferiko hauek arnas gaixotasunak, alergiak eta gizabanakoaren sistema immunologikoan disfunzioak eragiten dituztela jakinarazi zuten sindikatuak ordezkariek.

### MINBIZI ARRISKUA AREAGOTU

Era berean, dioxinakin kontaktuan egoteak, minbizia pairatzeko aukerak areagotzen dituela gaineratu zuten. Zentzu honetan, 1975. urtetik 1990era minbizi kasuak % 30 ugaltu direla azpimarkatu zuten, urtero 5.000 minbizi kasu gehiago daudela gehituz.

Errauskailuek, hiri hondakin solidoen osagai kutsakor eta arriskutsuak airean, uretan eta

lurren sakabanatzen dituztela salatu zuten sindikatuak ordezkariek. «Atmosfera zaborte gisa erabiltzeak, azken finean, lurrian, landareetan eta abereengan kutsadura pilatzea eragiten du. Gizabanakoak kutsagarriekiko oso ahulak dira eta kalte handia eragiten die», azalduz.

Errausketak, iturri berberak adierazi zuten, osagai kutsakor ugari dituzten materiale eta hausterrtan bihurtzen dituzten hondakin solidoak. Dioxinak horietako materialeak dira eta hauen kopuru txikiarekin ere kaltegarria da osasunerako.

Osasungintzako langileak, beren lana osasuna zaintzea den heinean, hondakinen errausketaren kontra agertu ziren atzo.

## Lurralde Antolaketa eta Hirigintza legea salatu du Udalen Federazioak

### IRUÑEA

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak gogor salatu du Gobernuak aste honetan bertan onartu nahi duen Lurralde Antolaketa eta Hirigintza legea. Francisca Catalan Federazioaren presidentek azaldu duenez, artikulatu ezkonstituzionalaren bat izan lezake Gobernuaren lege proiektuak eta errekurtsua aur-

keztea aztertzen ari dira. Biharko Parlamentuko Plenoan onartuko da Lege hau, tramitazio guztia oso denbora gutxian egin ondoren.

Federazioa kexu agertu zen, «urtebete daramagu lege honetan lanean eta ez digute kasurik egin, proposatutako puntuak ez dira zuzenketen bidez ere aurkeztu». Beraien ustez, lege proiektu honen udal eta kontzejuak hirigin-

tza arloan dituzten konpetentziak murrizten ditu, «gainera, dagoen bezala onartzen bada, Gobernuak isunak jar ditzake udalen kontra, herrien autonomia bertan behera utziz».

Honetaz gain, oraindik onartu gabe dagoen Tokiko Haziendaren Legea tramitatzeko «prozesu bera erabil dezakete, gure kalterako, eta hori bai laria izanen litzatekela».

## CCOOk drogaren aurkako kanpaina bultzatuko du langileen artean

### BILBO

«Eta zuk... zer-nolako pilak jartzen dituzu?» leloarekin CCOO sindikatuak drogamenpekotasunaren aurrezaintza eta sentsibilizazio kanpaina egingo du langileen artean. Kanpaina helburu bihurtu du. Batetik, langileei droga kontsumoaren (legekoak zein lege kanpokoak) eragin negatiboak ezagutzera ematea. Eta bestetik, langileak bizi kalitate hobea lortzeko ohitura osasungarriagoak bereganatu beharraz jabetzea.

Drogamenpekotasunarekin aurrezaintza eremuan CCOO programa integral eta partehartzailearen aldeko apustua egingo du. Sindikatu honetako kideen arabera, programak lehentasuna eman behar dio drogamenpekotasunaren arazo eta zioei langi-

leen osasuna, bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko bide modura.

Alkohola eta bestelako drogen kontsumoaren inguruan sentsibilizazio kanpaina bi mailatan egingo du sindikatuak honek. Horrela, lantokietan 40.000 eskupaper eta kartel banatuko ditu eta sindikatuak ordezkariek artean heziketa arloko 5.000 argitalpen banatuko ditu. Azken idazki horiek 'Drogamenpekotasunean sindikatuek esku hartzeko arteztaratuak' txosteneko oinarriko edukiak biltzen dituzte.

Material horiek guztiak lantresna izatea nahi dute, langileen artean drogen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa areagotzeko. Era berean, langileen partehartzea ahalbidetu nahi dute beren osasuna eta lan baldintzei buruz proposamenak egin dituzten.

## Bularreko minbiziaren kontrako tratamendu berria Onkologikoan

### DONOSTIA

Bularreko minbiziaren kontrako tratamendu berria jarri du martxan Donostiako Institutu Onkologikoak. Orain arte sendatu ezin zen bularreko minbizi metastatikoa sendatzeko baliagarria da tratamendu berri hau. Euskal Autonomi Elkartearen (EAE) gisa honetako tratamendu bat martxan jartzen den lehen aldia da honako hau. Institutu Onkologikoko zerbitzu medikuen ustez aurrerapausu handia suposatzen du teknika berri honek.

EAEn urtero bularreko minbizi duteen 650 gaixo berri agertzen dira. Pentsatzen da horietarik urtero 70ek jasoko dutela Donostiako Institutu Onkologikoan martxan jarri den tratamendu berria. Onkologikoko buruen ustez, «orain arte behin-betiko tratamendua jaso ezin zuten gaixoentzat esperantzagarria da tratamendu hau».

Teknika berri hau martxan jartzeko hamasei milioiko in-

bertsioa egin du Kutxaren Gizarte Zerbitzua den Institutu Onkologikoak. Juan Jose Albistur Tome eta Eva Olaso dira teknika berri honen mediku arduradunak.

Odol Periferikoko Zelula Progenitoreen Autotrasplantea izena duen metodo berri honek kimioterapia intensibo aplikatuz bularreko minbizi sendatzeko aukera ematen du.

Bularreko minbizi dute gaixoen % 7k metastasia du. Metastasia tratamendu arruntekin sendatu ezinezko gaixotasuna da. Lehen fasean artatzen diren lau emakumetik batek luzera gaixotasuna gainditzeko aukera du tratamendu berriaren bidez.

Tratamendu honek kimioterapia kopurua areagotzeko aukera ematen du, era honetan gaixotasuna luzatu edo gainditzeko aukera emanez.

Tratamendu berri honek beste zenbait aplikazio berri ere baditu, bularretako minbiziarenarekin batera martxan jarriko direnak.

## HILDAKOAK

### ARABA

■ GASTEIZ Juan Jose Nancrales Uribarre, 54 urte. Lidia Ruiz de Egino Corral, 74 urte. Julia Milagros Rijado, 84 urte. Gaspar de las Heras Iglesias, 72 urte. Teresa de la Fuente Soreguren, 77 urte.

■ TREBIÑO Jose Miguel Sanz Ortiz, 30 urte.

### BIZKAIA

■ BILBO Julio Sainz de la Maza Gutierrez. Esteban Campo Abad, 72 urte.

■ AREETA Pilar Real de Asua y Arana.

### GIPUZKOA

■ DONOSTIA Maria Artoia Kamio, 79 urte. Josefa Ramona Unzurrunzaga Urkia, 85 urte. Francisco Martinez Goñi.

■ ANDOAIN Rufina Arin Laskarai, 77 urte.

■ ANZUOLA Maria Concepcion Etxebarria Aurrekoetxea, 67 urte.

■ AZPEITIA Emilia Aizpitarte Agirre, 77 urte.

■ ERRENERIA Martin Babae Irañeta, 78 urte.

■ IBARRA Segundo Izagirre Aristi, 80 urte.

■ IRUN Carmen Gonzalez Berrocal, 96 urte. Gregorio Ustara Martinez, 60 urte.

■ MENDAROA Alain Alberdi Zabala, 19 urte.

■ ORIO Antonio Agirresarobe Ibaguren, 61 urte.

### LAPURDI

■ BAIONA Jean Lassus, 75 urte.

■ EZPELETA Marie Jeanne Errekarat, 86 urte.

■ MIARRITZE Pierre Labedays, 72 urte. Jeanne Prae, 83 urte.

### NAFARROA

■ IRUÑEA Candida Munita Etxandi, 83 urte. Jesus Ripalda Arbea, 94 urte. Carmen Garcia Elia. Ana Maria Pecino Miranda, 56 urte.

■ AGOITZ Miguel Sese Oliva, 68 urte.

■ ALTSASU Antonio Garcia Vela, 36 urte. Aniceta Paula Caldito Galan, 85 urte.

■ IZABA Carmen Asiron Irigarai.

■ LARRASOAN Jose Maria Petri Oroz, 66 urte.

■ MURTXANTE Francisco Javier Solano Aguado, 53 urte.

■ ZANGOZA Gregorio Estremado Rodrigo, 85 urte.

### NAFARROA BEHEREA

■ ARNEGI Martine Auzkui, 85 urte.

■ BEHASKANE Marie Tapie, 86 urte.

## ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:  
ARRATSALDEKO

4ak arte: (943) 46 90 22

4etatik 7etara: (943) 37 15 45